

Biolina jotzen

BIOLINA JOTZEN DET. Biolin-jotzaile baino harpa-jotzaile hobeena naiz, baina biolina dut bizibide. Uda beroa; beroak luze jotzen du. Guk jo eta berak jo. Uda partean dut nik pagotxa, kontzertu korda. Alferra, udan, lehenaz gain, harrotu egiten da, eta batzuek kontzertu batean edo bestean izana dela azaldu beharra daukate, ur gaineko bitsaren adierazle. Nire biolina entzutera inguratzen den askorentzat, bere doinua zuldar baten tankerakoa da. Sasoikoa, pasako da, eta kito. Bizibide ederra dena bizimodu petral bihurtzen dit, zenbaitek. Entzule lorontziez ahaztu beharra daukat, baldin eta goren jo nahi badut. Lorontziak balira datoz eta: “Parfum terralez” inguratuta, bitxien tintin eta dilin jariotan eta, egin ahalagatik, gilborra ezkutatu ezin dien soineko eta frak eta fraketan enbutituta.

Gaur Camille izango dut konpañero. Camille Saint-Saëns, bekatu eta jolas lagun. Nire ohai-de piano-jotzaileak, haren *Anima-lieu inauteria* jo nahiago luke, baina niretzat, nire biolinarentzat eta biolinaren niretzat, gaurko egitarauaren gailurra izango den *Hil Dantza* bezalako gutxi dago. Ehun eta berrogei urte dituen doinua... Klasikoetan klasikoena



BRUNOTHG-CC BY SA

izan nahi zuena. Jotzen dudanero hildakoa jaiotzen dela irudikatzen duena.

Eta klasikorako klasikoa, biolina. Kutzaren gaina izeizkoa (*Picea* sp.) eta aldeak eta azpia astigarra (*Acer* sp.). Astigar berezko eskutokiaren gaineko diapasona ebanozkoa (*Diospyros* sp.). Hariei eusten dien zubitxoak ere astigarra. Hariak, jakina, ardi hestez eginak, doinu meheen kantinoa izan ezik, hori urrezkoa. Horiei eusten dien zubipekoa palisandrozkoa (*Dalbergia* sp.). Zur berekoa da

hariaren gainean dantzatuko dudana uzaia. Horren heldulekua ebanozkoa eta haria Mongoliako zaldien isatseko 187 zurda zuriz txirikordatua.

Eta frakaren ezker aldeko barruko patrikatxoan dudana kolofonioaren aldera karga sentitu gabe ezin go nintzateke orkestrara lotu. Hariak hariari heltzeko kolofonioa. Hestezko harientzat aproposena, bike gorritzkoa, itsas pinuaren (*Pinus pinaster*) negar zihotua. ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Belardian menta belar asko daukagu eta hori nola galdu ote dezakedan da nire galdera. Eskertuko nizuke nire zalantza argitzea. Aldez aurretik mila esker.

Aitziber Urdangarin (Ataun)

Kaixo Aitziber. Menta nitrogeno asko dagoen tokietan ugaritzen da. Ganadua ibiltzen delako edo simaur asko botatzen delako, edo... Galtzeko era onena maiz moztea da. Motosegarekin ongi, moztu eta berritu ordurako berriaz moztu. Mentak lur azalean dituen sus-



FOREST & KIM STARR-CC BY

trai lodikoteak energiaz hustea da helburua. Lan hori ilgoran eginez gero, hobeto. ■